

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Inazio Urdanpilleta San Sebastian

*Donostia,
Gipuzkoa
(1913-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Apaiz donostiarra. Egiako teila fabrikako etxean jaio zen, aita bertako langilea baitzen, garraiolarien arduraduna. Egia kaleko beste etxe batera mugitu ziren geroago. Bost urte zituela euskaraz bakarrik zekien; eskolan ikasi zuen erdara. Marinen argazki dendan egon zen lanean, eta banketxe batean ere bai. Donostian bertan egin zuen soldadutza, Atotxan zegoen kuartelean. Gerra hasi zenean Tolosan zegoen, eta Donostiara bueltatu zen. Bihotzean zuen arazo bat zela medio, ezgai izendatu zuten, eta ez zuen gerran parte hartu, nahiz eta horretarako adin aproposa izan. Bizkaia aldera joan zen familiarekin: Ibarrangelu, Somorrostro... 29 urterekin apaiztu zen; horretarako, bederatzi urte egin zituen Gasteizko seminarioan. Lau urtean Lizartzan egon zen apaiz, beste lau urtez Tolosan, eta gainerakoak Donostian eman zituen.

Zintak

DON-012

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-15
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Egiako teila lantegia

- **Erref:** DON-012/002
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:02:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

Egia kalean jaioa (elkarrizketaren unean ere hortxe bizi zen, baina kalearen bestaldean). Teila lantegia zegoen hor, eta etxe bakarra. Bi familia bizi ziren han. Aita lantegiko langilea zen, garraiolaria; idiekin ibiltzen zen.

2. Egia kalea nolakoa zen

- **Erref:** DON-012/005
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:05:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Egia kalean etxe gutxi zeuden; adreilu lantegiko etxetik bestaldera joan ziren bizitzera, kale berean. Lizarribaren lantegiak. Zendoia egur tailerra. Sute bat izan zen, eta horrela desagertu ziren.

3. Mutikotan euskara besterik ez zekien

- **Erref:** DON-012/007
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:05:58. **Bukatu:** 00:10:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Bost urte artean euskaraz bakarrik zekien; eskolan ikasi zuen erdaraz, derrigorrez. Maisua zein zen, mutrikuarra. Kaleko giroa nahiko euskalduna zen. Iraiene tabernan egoten zen aita, eta euskaraz hitz egiten zuten lagunartean. Kanpotarrak joan zirenean, Espainiatik, aitak-eta ezin zuten euskaraz egin eta amorrua ematen zion. Non bizi ziren azaltzen du berriz ere, teila lantegiko sarreran zegoen etxetxoan; bulegoak ere han zeuden.

4. Egia auzoan zer zegoen

- **Erref:** DON-012/008
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:10:19. **Bukatu:** 00:12:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Taberna bakarra du gogoan, etxe parekoa. Etxe azpitan sagardotegiak izaten ziren: Ibañez eta Etxabe; kanpoan mahaiak zituzten, sagardoa edateko. Kafetegirik ez zen orduan. Egian etxe gutxi zeuden, autorik ez, eta kale erdian diabolarekin jolasten zuten neskatilek.

5. Umetako jolasak eta eskola

- **Erref:** DON-012/009
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:12:22. **Bukatu:** 00:13:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Umetako jolasak. Txibak. Gerra egiten zuten adreiluen listoiekin. Eskolako maisua ona zen, ondo irakasten zuen; irakasleak orfeoia izan zuen Mutrikun bertan.

6. Tabakalera

- **Erref:** DON-012/010
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:14:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Tabakalera beti ezagutu du. Jende asko zebilen lanean han, emakumeak gehienak. Korrika joaten ziren denak lanera, ateak itxi aurretik.

7. Ikasketak eta lehenengo lanak, apaiztu aurretik

- **Erref:** DON-012/011
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:14:31. **Bukatu:** 00:17:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Eskolan ibiltzeaz aparte, klase partikularrak ere ematen zizkien maisuak.

Garibai kaleko konserbatorioan ere ibili zen, musika ikastera. 29 urterekin hasi zen apaizgoa ikasten. 60 laguneko abesbatza izan zuen gero. Marin argazkilariarekin hasi zen lanean, Garibai kalean, eta gero Guipuzcoano bankuan jarri zuten lanean, baina ez zitzaion gustatzen. Argazkiekin ibiltzea nahiago zuen.

8. Amaren sufrimendua jaso zuen

- **Erref:** DON-012/013
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:18:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Osasunez larri ibili zen txikitatik, nerbioetatik gaizki. Bera jaiotzeko zegoela, arreba zaharrena hil zen. San Inazio klinikan hil zen, eta amari ez zioten ikusten utzi. Amaren sufrimendua berak ere jaso zuen. Marinen hasi zenean, toki umela zen, eta ez zitzaion komeni.

9. Marin argazkilariarekin lanean

- **Erref:** DON-012/014
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:18:39. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Marin argazkilariarekin lanean egon zeneko kontuak aipatzen ditu. Argazkiak erretokatzen zituen berak. Dendaren sarreran jartzen zituzten onenak. Jende asko joaten zen erretratuak ateratzera, dotore jantzita. Argia emateko modua zein zen. Lehenengo negatiboak kristalezkoak ziren.

10. Gerra aurretik egin zuen soldaduska, Donostian bertan

- **Erref:** DON-012/015
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:26:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Osasun arazoengatik Tolosara joan zen. Han zegoela hasi zen gerra. Ordurako soldaduska eginda zeukan, Donostian bertan, Atotxan (Loiolan kuartelik ez zen artean); "de cuota" zen orduko soldaduska, ordaindu egin behar zen. Gerrara joateaz libratu zen, bihotzeko arazo bat zeukalako.

11. Gerra garaian Bizkaira joan ziren ihesi

- **Erref:** DON-012/016
- **Iraupena:** 0:05:29. **Hasi:** 00:26:11. **Bukatu:** 00:31:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra etorri zenean, teila lantegiko kamioiak errequisatu zizkieten. Denak galdu zituzten. Nazionalak sartu zirenean, Zarautzera joan ziren eta handik Somorrostrora; Ibarrangelun egon ziren zazpi hilabetez. Nola libratu zen gerran soldadu egotetik. Bizi ziren etxea bonbek suntsitu zuten, Somorrostron.

12. Gernikako bonbardaketa

- **Erref:** DON-012/017
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:33:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Ibarrangelun zeuden Gernika bonbardatu zutenean. Astehenetan azokar joateko ohitura zuten, baina egun hartan ez ziren joan. Hegazkinak eta sua ikusi zituzten.

13. Somorrostrotik Donostiara

- **Erref:** DON-012/018
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:33:14. **Bukatu:** 00:36:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Somorrostron italiarrak agertu ziren. Familia baten etxean zeuden, eta han bi seme ezkutatuta omen zeuden (beraiek artean ez zekiten); amarekin arrosarioa errezatzen zuten egunero, eta haiek nonbait, entzun. Meatzeetan egoten ziren, ezkutatuta, eta hara mutil gazte bat joan zitzaion (etxean ezkutatuta egon zenetako bat?), ihes egiteko abixua ematera. Bilbora joan ziren eta gero handik Donostiara.

14. Bueltan, etxea hutsik; arreba jostuna

- **Erref:** DON-012/019
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:36:07. **Bukatu:** 00:39:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Donostiara bueltatu zirenean, etxea ia hutsik topatu zuten. Josteko makina utzi zuten; arrebak galtzak josten zituen, eta sastreria batean topatu zuen lana; aurretik sastreria famatua batean zebilen lanean, baina bueltan ez zuten hartu. Hari eskerrak egin zuen aurrera familiak.

15. Gerraosteko gosea

- **Erref:** DON-012/020
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraosteko errazionamendua. Ogi txarra eta boniatoak.

16. Bokazio erlijiosoa eta apaizgoa

- **Erref:** DON-012/021
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:44:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Frantziskotarrak Egiara joan ziren, eta bera abestera joaten zen mutikotan. Gero, gerra hasi zenean, fraide batengana joaten hasi zen; juventud antoniana sortu zuen. Accion Catolicako lehenengo promozioan ere egon zen. Seminariora joan zen gero, 28 urterekin, Gasteizera. 9 urte egin zituen apaizgo ikasketak egiten.

17. Abesbatza zuten Gasteizko seminarioan

- **Erref:** DON-012/023
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:44:54. **Bukatu:** 00:46:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Gasteizera joan zen, seminariora. 600 lagun zeuden, hiru probintziatakoak. Abesbatza sortu zuten. Ahotsa ederra zuen berak. Apaiz egon zen toki guztietan izan zuen abesbatza: Lizartzan, Tolosan...

18. Seminarioko bizimodua

- **Erref:** DON-012/025
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:46:42. **Bukatu:** 00:49:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Seminarioan seietarako jaiki, otoitz egin eta norbere gela garbitzen zuten. Debekatuta zuten gelatan binaka egotea. Erdaraz eta latinez ikasten zuten.

19. San Ignazio eliza eta Polloe kanposantua

- **Erref:** DON-012/026
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:49:11. **Bukatu:** 00:50:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Mutikoa zela, Groseko San Inazio elizara joaten ziren; beste elizarik ez zen inguruetan, ez Egian eta ezta Loiolan ere. Kanposantua orain dagoen tokian zegoen; etxerik ez zen han, baserriak bakarrik. Donostia guztikoak lurperatzen zituzten Polloen. Nola eramaten zituzten: oinez Santa Katalina zubiraino eta gero zaldizko kotxearekin gora.

20. Lizartzan eta Tolosan apaiz

- **Erref:** DON-012/027
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:50:45. **Bukatu:** 00:52:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Lizartzan egon zen apaiztu zenean, lau urtez. Gaixotu egin zen. Maisuek greba egin zuten eta hango mutilei erakusten ere ibili zen; ez zuten erdara ulertzen. Meza euskaraz ematen zuen. Kanean ere dena euskaraz egiten zen. Tolosan erdara ere asko egiten zen; han meza bietara ematen zuen.

21. Mezetara joateko ohitura

- **Erref:** DON-012/029
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:52:58. **Bukatu:** 00:53:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Prozesio asko egiten ziren lehen; orain ez. Garai hartan mezetara joan gabe ez zen inor gelditzen. Fedearengatik batzuk eta ohituraz besteak.

22. Bi urteko lutoa

- **Erref:** DON-012/031
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:56:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Norbait hiltzen zenean, bi urteko isilaldia izaten zen eta lutoa. Norbait hil-urren zegoenean, apaiza etxera joaten zen. Arrosarioa, eskaileretan.

23. Mezak latinez

- **Erref:** DON-012/032
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:56:54. **Bukatu:** 00:58:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Meza denak latinez ziren hasieran, ez erdaraz. Liburuak izaten ziren meza jarraitzeko. Hitzaldia erdaraz edo euskaraz, baina meza latinez. Konfesatu, gehiena erdaraz.

24. Mediku kontuak

- **Erref:** DON-012/037
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:00:41. **Bukatu:** 01:03:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Groseto Manteo ospitalea zen bakarra, eta gero klinika partikularrak zeuden. Medikuek, berriz, etxean zuten kontsulta. Ordaindu egin behar zen. Don Fermin zen beraien medikua, eta aurretik Don Angel. Biziriketako gaitzak (tuberkulosiak) ez zuen sendabiderik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com